


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Thomas Cook, lehen bidaiaria agentea



JOSE LUIS MAQUEIRA



ASPECTS OF YORK LIBRARIAN HARTUA

Ezkerrean, Thomas Cook konpainiako hegazkin bat. Eskuinean, Thomas Cook bera; bidaiaria antolatuen eta bidaiaria agentzien sortzailea izanda, turismo modernoaren aitatzat jotzen da.

LEICESTER (INGALATERRA), 1841EKO UZTAILAREN 5A. 570 lagun Loughborough-era joan ziren Midland Counties Railway konpainiaren pleitatutako trenean, biltzar antialkoholiko batean parte hartzeko. Itxuraz, historian iragarritako lehen tren bidaiaria izan zen eta, beraz, lehen bidaiaria antolatua. Thomas Cookek (Melbourne, Ingalaterra, 1808, Leicester, 1892), behin, ia hamazortzi kilometro egin zituen oinez edari alkoholodunen aurkako bilera batera joateko, eta orduan bururatu zitzaion txangoa antolatzea. Ez dirudi lehen bidaiaria hark onura ekonomikorik ekarri zionik.

Horrek ez du esan nahi jarduera berritzaileari esker etorkizunearan etekinik lortu ez zuenik. Burgesiari aisia-bidaiaria arin eta merkeak eskaintzeko negozioa zabaldu zuen berehala, beti ere trenea baliatuta. 1851n 165.000 pertsona eraman zituen Londresko Erakusketa Unibertsalera eta, handik lau urtera, Leicesterretik Calais-erako txangoak antolatuta, kontinentera jauzi egin zuen bidaiariak Pariseko Erakusketara helarazteko.

1856an Europa Iparraldean barna-

ko bira antolatu zuen. 1868an Harwich bidean bidaiarien zirkulazioa ustiatzeko eskusiba lortu zuen eta, berehala, baita Brennero portuaren eta Brindisiren arteko bidearena ere. Bide hura, Frantziaren eta Prusiaren arteko gerran, Cooken turismo enpresarentzat soilik egon zen irekita. Hotelekin hitzartutako bonuak ere alkoholaren aurkako militante honek asmatu zituen, bezeroen ordainketa errazteko.

Cookek 1864an Italiara lehen txangoa antolatu zuenean, zera esan zuen *Blackwood's Magazine* aldizkariak: «Lotsarik gabeko gizon batek diru kopuru baten truk 40 edo 50 lagun Londrestik Napolira gidatzeko proiektua asmatu du. Haiek eraman, jatekoa eman eta dibertiarazteko konpromisoa bere gain hartzen du gizon horrek. Italiako hiriak mota horretako izakiz gainezka daude, zinez».


Egun Thomas Cook bidaiaria agentzia sasoi betean dago, hegazkin konpainia propioa eta guzti, eta munduko txoko ia guztiak "mota horretako izakiz gainezka daude".

Arrastoak

Neanderthal emakumeak endogamiaren aurka

NEANDERTHAL GIZAKIA talde txikietan bizi zen eta endogamiak eragindako kalte genetikoa saihesteko emakumezkoak talde batetik bestera aldatu ohi ziren. Horixe ondorioztatu dute Asturiasko El Sidron kobazuloan (argazkian) aurkitutako arrastoak aztertu ondoren.

Lehenengoz, hamabi banakoren ADN mitokondrial sekuentziatzea lortu dute, eta amaren aldetiko hiru leinukoak zirela ikusi dute. Alegia, arrak leinu berekoak zirela eta emeak, aldiz, ez. Horrez gain, emakumeek haurrak hiru urtez behin izan ohi zituztela adierazten dute ikerketaren emaitzek. Bi datu berri horiek bat datoz egungo tribu ehiztari-biltzaileen ezaugarriekin.



EL COMERCIO